

- Bullying homofobikoa-

# Ez dute nahi ikaskide gayrik

Mutikoari ez zaio futbola gustatzen, dantza bai. Afeminatua da. 12 urte ditu eta oraindik ez daki mutilak gustatzen zaizkion ala ez. Gauza bat badaki: ikaskide mutilek iseka egiten diote, kopetea du etiketa: *marikoia*. Bullying homofobiko kasu tipikoa.

Onintza Irureta

Argazkia: Dani Blanco

Futbolearen hastear dira eta mutilak mutilari: "Zu ez, zuk luma daukazu".



JESÚS ESTOMBAREKIN egon gara. Gehituko (Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual eta transexualen elkarte) Infasis ataleko koordinatzailea da. *Nerabeen jarrerak aniztasun afektibo-sexualaren aurrean* izeneko ikerketaz galdetu diogu. Lehen aldia da horrelako ikerketa egin dena Euskal Herrian eta zergatik egin duten galdetu diogu. Gehitun bazuten ustea ikastetxeetan homosexualitatearen gaia ez zebilela bide onetik. Usteak ziren, oinarririk gabeak. Horretara dator 2007-2008ko ikerketa; batetik, Gehitu elkarteak berak jakin nahi zuelako ikastetxeetan zer ari den gertatzen eta bestetik, erakunde publikoen aurrean datu serioak aurkezteko aukera zelako. Emaizak eskutan Estombak argi du, usteak ez dira erdia ustel: gazteen jarrerak homofoboak dira. Ikerketa 2007-2008 ikasturtean egin zuen Gehituk Donostiako hainbat ikastetxetan. 14 eta 18 urte arteko 155 mutilek eta 168 neskek bete zuten hamabost galderako galdetegia. Ikerketak bi aurrekari baino ez ditu Espainiako Estatuan, Madrilgo Coslada herrikoa eta San Bartolomé de Tirajana Kanariar Irletakoa.

### Lau ikasle jipoituak izan dira

Eskuineko orrialdean dago hainbat datu. Lau ikaslek aitortu dute jipoituak izan direla, hamahiru mehatxatu egin dituzte eta gauzak bota dizkiete hamazazpiri. Jarrera homofoboak jokabide bihurtu dituztenen eta ikusi dituztenen datuak ere ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Lekukoena deigarria da, gazteen %73,99ak norbait iraintzen ikusi du, eta %52,32ak, jipoitzen. Estombak ikerketan hurrengo galdera ez egitearen pena du, alegia, “Jarrera homofoboak ikusi dituzu eta zer egin duzu?”, zeren badirudi ikusi eta ez dutela ezer egin, begira geratu direla, eta lekukoek horrelako jarrera izatea sutarako txingarra da. Estombaren ustez, ikasle lekukoek ez dute loturarik egiten *marikoi* deitzearen eta horren atzean dagoen guztia artean. Badakite iraina dela, baina ez du alar-marik pizten.

### Neskak ulerkorrago

Ez dituzte berdin erantzun hamabost galderak neskek eta mutilek. Sexu aniztasuna neskek errazago onartzen dutela dirudi. Desberdintasun horien zergatiak galdetu dizkiogu Estombari: “Ikerketak emaitza batzuk eman ditu, hortik aurrerakoak interpretazioak dira, nahi baduzu, nireak. Gizonak asko dauka galtzeko, emakumeak ez, beti egon baita bigarren mailan. Homose-

xualitatearekin gizonaren eredu klasikoa puskatzen da. Ikerketan ikusten da mutilek jarrera okerrenea gayekiko dutela, atzerago geratzen dira bisexualak eta transexualak.

### Urrutikoari bai, gertukoari ez hainbeste

“Abestiaren letrarekin geratu dira, baina ez melodiarekin”. Erantzun kontraesankorrak baitaude ikerketan. Alegia, maila teorikoan aurkeztutako egoeretan (*Egokia al da mespretxuz tratatzea sexu bereko pertsonak gustukoak dituztenak?*) sexu aniztasunarekiko malguagoak dira gazteak eta gertuko egoeretan (*Alboko ikaslea gay, lesbiana edo bisexuala dela jakingo bazenu zein erreakzio izango zenuke?*) jarrera homofoboagoak dituzte.

Ikerketako emaitza batzuk baino ez ditugu aipatu hemen. Balorazio orokorra zein den galdetu diogu Estombari: “Jarrera homofoboak gaintitu al ditugun galdetzen didazu? Ez, segi eskolara. Ikasleek beraiek esan dute ez dela toki segurua ikastetxea gay, lesbiana, bisexual eta transexualentzat. Emaizak irakurrita kontzentrazio esparruak dirudite eskolek, eta kontu, 323 ikasle horietatik %12k adierazi dute homosexual direla edo zalantzak dituztela”.

### Bullying homofobikoaz ikastaroa

ARGIA aldizkariak bullying homofobikoa lantzea erabaki zuen duela hilabete batzuk. Balizko gaien karpetan gorde genuen, argitaratze datarik eta egilerik gabe. Halako batean, UEUko Udako Ikastaroen artean, artikulua honen egileak ikastaro bat topatu zuen: *Bullying homofobikoa: nola ekidin sexu aniztasunarekiko diskriminazioa gazteengan?* Hiru eguneko ikastaroa Eibarko Markeskoan. Pare-parean. Kazetariak hara joan eta gaia abian jartzea pentsatu zuen.


Hamabost bat laguneko taldea izan zitekeen gehienez; zazpi baino ez ginen elkartu. Haridura adierazi genion Udako Ikastaroen arduradunari. Hark aipatu zigun emakumeen aurkako indarkeriaz aurreikusitako ikastarok ez zuela aurrera egin bik baino ez zutelako izena eman. Gai arantzatsuegiak nonbait.

Hiru irakasle, irakasle gaia, aisialdiko begiralea, berdintasun teknikaria eta kazetaria ginen taldean. Gidari lanetan Monika Martin eta Eider Goiburu Lahia-Nahia Sexologia Elkarteko kideak. Biek Gipuzkoako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan sexu heziketako eskolak ematen dituzte. Bullying homofobiko kasuak kudeatu behar izan dituzte ikastetxe batean baino gehiagotan.


“Emaizak irakurrita,  
eskolek kontzentrazio  
esparruak dirudite”

JESUS ESTOMBA,  
GEHITU-KO KIDEA


**Gazteek ikusi, entzun, egin edo jasan dituzten homosexualitatearekin lotutako jarrerak**




**Zu gay, lesbiana, bisexual edo transexual zarela usteko balute nola erreakzionatuko lukete ikaskideek?**



**Zure alboko ikaskidea gay dela jakingo bazenu zer egingo zenuke?**



**Eta lesbiana dela jakinda?**



Ikastaroko partaideek, haur-gazteekin lanean oso ohituak, barruak hustu zituzten: egunero eskoletan eta aisialdi taldeetan ikusitakoak kontatu zituzten eta Martin eta Goiburua irakasleen laguntzaz irtenbideak aurkitzen saiatu ginen. Bullying homofobikoaz diagnosi zorrotza egiteko intentziorik gabe, hona ikaskideen barrenetik ateratako kezkek eta egunero bizi dituzten zailtasunak.

**Beti gertatu dira eta beti gertatuko dira**

Ikastetxeetarako, sexu aniztasunari buruzko unitate didaktikoa dago –EAEz ari dira ikastaroko ikaskideak–. Curriculumak dio gai hori landu behar dela, baina egonean dago. Sexu heziketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasten zaie, ikastaroko partaideen iritziz, haurdunaldiak saihestea da helburu nagusia. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez da ezer lantzen, ez dago programarik.

Eskoletako irakasleak, kolore guztitakoak marraztu dituzte partaideek: bullying homofobikora iritsi aurreko prebentzioa landu beharko lukete, baina askotan bestaldera begiratzen dute, “beti gertatu dira horrelakoak eta beti gertatuko dira”. Bestalde, irakaslearen lan zakua gainezka dago: “Bullying homofobikoa ere guk landu behar al dugu?”. Homosexualitatea gaixotasuntzat dute irakasle gutxi batzuek: “Pasako zaio”. Beste

2007-2008ko ikerketa da Gehituk Donostiako hainbat ikastetxetan egindakoa. Lagina: 14-18 urte arteko 155 mutil eta 168 neska.

asko, ulerkor bai, baina deseroso sentitzen dira gaiaren aurrean.

DBHn irakasleak kimikoak, matematikoak, historialariak dira, ez dute sexu aniztasunaz inolako formakuntzarik. Partaideek hala borobildu dute ikastetxeetan bizi duten panorama: eskola komunitateak ez daki nondik jo.

Haur Hezkuntzan lan egiten duen irakasle batek ziklo horren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. Haur Hezkuntzako garaian ari dira haurrak euren gorputza esploratzen eta garai hori geletan baliatzea aldarrikatzen zuen. Kontraesanak ere gogora ekarri zituen: gelan gona janzen du neskek bezala mutilak, azazkalak margotuta dabilta, besarkadak dauzkate elkarrentzat eta eskutik helduta doaz. Haur Hezkuntzako irakasle aipatu berriak esana: “Ikastetxeko eskailerak jaitsi ahala mutilen eskuak askatzen doaz, besarkadak atzean geratu dira. Badakite non bai eta non ez”.

Zailtasunak, ezinak... barrenak hustu zituztela profesionalek, alegia. Alabaina, ezintasunak agertzeko uneak izan ziren bezala, irtenbideak aurkitzeko ariketa asko egin genuen. Bullying homofobiko kasu errealek aztertu genituen. Honakoa bata: futboleko hasi dira neska-mutilak. Mutil horietako batek beste mutil bati esan dio: “Zuk ezin duzu, luma daukazu”. Beste bat: mutil jaioak neska izan

Eider Goiburu, sexu hezitzailea

## “Ikuslerik gabe erasoak ez luke zentzurik”

Oriotarra (Gipuzkoa), Lahia-Nahia Sexologiako Elkarteko kidea da eta sexu hezitzaile ari da Gipuzkoako ikastetxeetan. Psikologoa da eta berdintasun agentea ere bai. 11 eta 20 urte arteko gazteekin egiten du lan eta berak dio bullying homofobiko kasu gehien DBHn izaten dela.

### **Bullying kasu askoren atzean homofobia ezkututzen omen da.**

Bullying kasu askotan homofobia ez da oinarri, baina bullying asko kasu homofobiko bihurtzen dira. Adibidez, mutil bati hasieran *gillipollas* deitzen zioten eta bukaeran *puto gay* edo *puto maricón*. Ez zen afeminatua, ez gaya. Baina irain potoloa da adin horietan gay izatea.

### **Bullying homofobikoaz hitz egi-terakoan beti mutilak aipatzen ditugu.**

Biktimak orokorrean mutilak izaten dira. Gizartean nesken genero rola aldatzen ari da, malguagoa da, neskak mutilen eremuetan sartzea askoz onartuago dago: kirola egin, arropa zabalagoa jantzi... Mutilek nesken eremuan sartzea zailago dute. Mutilek futboleko jolastu beharrean dantza egiten badute puntu asko dituzte erasotuak izateko. Nesken rola malgutu da eta beraz eraso gutxiago dago, mutilen rola oso estatiko jarraitzen du eta hortik pixka bat ateratzen dena zigortua da.

### **Mutila ez da ezkutuan geratzen.**

Batez ere afeminatua erasotzen da, genero roletik ateratzen dena. Homosexualitatearekin dauka zerikusia, baina ez hain zuzen.

### **Nola bizi du biktimak egoera? Zer dio berak?**

Biktimak ez du ezer esaten. Hori da arazoa. Ez du ezer esaten, beldurra dauka zerbait esaten baldin badu erasoa areagotuko dela. Nerabeza-



roan lagunek garrantzi handia daukate eta derrepente lagunik gabe geratzen dira, edo taldeak baztertuta daukan beste norbaiten lagun baino ez dira. Bakardade hori bizitzea oso gogorra da.

Gainera, heterosexual izateko hezten gaituzte eta nerabezarora iritsi eta hasten bazara pentsatzen igoal ez zarela heteroa... Ikasi duzun egitura hori puskatzen ari zara guztiz, zure barnean bizi duzu hori dena, eta kanpotik ez daukazu laguntzarik. Egunero eskolara joatea sufrimendua da. Batzuk bullyinga sufritzen ari dira eta beste batzuek homosexualitate prozesua isilean eramaten dute. Azken horiek onartuak dira, baina ez dute-lako ezer esan. Sentitzen dutena ezin dute adierazi besteen aurrean zeren inork ez lieke ulertuko.

### **Biktima eta erasotzailearen figuraz gain ikuslearena lantzen duzue.**

Inportanteena da. Norbaitek eraso egiten du beste norbait begira dagoelako, ikuslerik gabe erasoak ez luke zentzurik. Ikuslea da erasoren unean indar gehien daukana, ez badira erasoa ikustera joaten edo ez baldin badute onartzen aukera askoz gehiago daude bullying kasuek atzera egiteko.

### **Zenbateraino jabetzen dira ikusleak egiten dutenaz?**

Ez dira kontziente, esaten dute beraiek ez daudela inplikaturik horretan. Bestalde, beldur dira muturra sartzeko eta estigmatizatuak izateko, alegia, erasotua defendatzen badut ni ere erasotua izango naiz. Neskak erasotua-rekin egoten dira, baina erasoaren momentuan bertan inor ez da ausartzen erasotzaileari esatera: “Pasatu egin zara! Nora zoaz?”.

### **Zerk harritu zaitu gehien ikastetxeetan?**

Helduek. Badira helduak uste dutenak hau dena gaitututa dagoela eta esaten diezunean beren seme-alaben gelan bullying homofobikoa gertatzen ari dela, ez da ez dizutela sinesten, baina beren seme-alabak homofoboak direla esaten badiezu sinestea zaila egiten zaie. Esaten dute badituztela ereduak telebistan, familian... Ez dute ulertzen euren seme-alabak homofoboak izatea.

Jarrera horrek harritu egiten nau eta kezkatu ere bai. Helduak ez bagara gai errealtatea ikusteko, dena gaitututa dagoela uste badugu, ezin dugu hori landu. Gurasoez ari naiz, irakasleek gelan ikusten dute.

### **Sexu aniztasunaren normalizazio bidean zein nota jarriko zenieke ikasleei?**

Nerabeek argi dute zer den esan behar dena, politikoki zuzena, baina jokabidez ez dabilta ondo. Bestalde, gauza bat da nerabezarora eta bestea gaztaroa. Gaztaroan jarrerak hobetu egiten dira. Nerabezaroko eredu oso itxiak dituzte, segurtasuna sentitu nahi dute. Eredu horietatik ateratzea gogorra da. Gaztaroan bakoitzak hobeto daki nondik jo nahi duen, bere buruarekin hobeto dago; errazago onartzen da norbera eta bestea.

nahi du eta ikastetxean nesken komunak erabili nahi ditu. Neskek ez dute beren komunetan onartu nahi.

Bi adibide horiek papera eta boligrafoa hartuta landu genituen, irtenbideak pentsatzeko astia hartuta. Hurrengo bi ariketetan ez genuen horretarako astirik izan. Bi antzerki egin genituen, norberak rol zehatza zuen jokatzeko eta momentuan inprobisatu behar zen. Tentsio handiko ariketa izan zen horietako bat: ikasgelan irakaslea sartu da eta ikusi du nola ikasle batek besteari mahai gaineko gauzak lurrera bota dizkion. Irakasleak ez daki, baina neska hori jazarri egiten dute lesbiana dela egotzita. Bullying homofobikoaren osagai guztiak daude hor; erasotzailea, ikusleak, biktima, eta irakaslea ahal duena egiten. Rol jokoa bukatutakoan, Martin eta Goiburu irakasleek ariketa goitik behera errepasatu dute. Rol joko eta bestelako adibideetan landutako irtenbideak ez dira erre-zeta magikoak eta egoera jakin bakoitzari emandako erantzun guztiak ezin dira hemen jaso. Ea ondo-koak zer baitetarako balio duen. Hasteko, irakasleak jabetu behar du zer bait onargarria ez dena gertatzen ari dela, ez du balio “beti gertatzen dira horrelakoak” esan eta kito egiteak. Irakasleak arreta deitu behar dio erasotzaileari, eta ez ahaztu bullying homofobikoan gakoetakoa diren ikusleekin. Ez dago zertan erasotzaile-ikusle-biktima hirukotearekin gertatutakoa batera landu beharrik. Oso normala da biktimak jazartzen dutenen aurrean ahorrak ez irekitzea. Eskola komunitatea jakinaren gainean jarri eta erasotzaile, ikusle zein biktimaren gurasoekin hitz egin.

### Bullying homofobikoa ez da existitzen

Bi rol jokoa gogorrak izan badira, bi bideo eztarriko zuloan geratu zaizkigu. Alicia Santolayaren bideo erreportajea (*Zergatirik gabe-*

*ko suizidioak*) Alba Payas Gironako psikoterapeuta ageri da. Harengana bere buruaz beste egin duten gaztetxoek gurasoak doaz. Gurasoek ez dakite semeek (beti mutilak ageri dira) zergatik hartu duten halako erabaki latza, ume normalak ziren, bere buruaz beste egiteko arrazoi agerikorik ez zuten.

Frantziako Estatuan, 16 eta 39 urte arteko gizonetatik bere buruaz beste egiten saiatzen diren hirutik bat homosexuala edo bisexuala da. Espainiako Estatuan esaten da, nerabeek bere buruaz beste egiten dutela buru-nahasmenduengatik, arrisku jarrerengatik, edo drogak kontsumitzeagatik, homofobia ez dago zerrendan. Bullyingaz hitz egiten denean homofobia ez da aipatu ere egiten eta Alba Payasen ustez lehen kausa da.

Bigarren bideoak *Vestido nuevo* (Sergi Ferrer) izena du. Ondokoa gaia: inauteriak dira eta ikastetxeak ohartarazi du arratsaldean dalmataz mozorrotuko direla haurrak.

Mario mutikoa soinekoa jantzita agertu da goizean. Ikasgelan sartu denean irakaslea aho zabalik geratu da: “Mario, zer egiten duzu?”, ikaskide guztiak begira isil-isilik. Mariok dalmata mozorroa bizkarzorroan darama, gaur goizean ez da mozorrotuta joan eskolara. Eskandalua, ikaskideak iseka, zuzendariarengana eraman dute, aitari hots egin diote. Aitak trajearen jakarekin estali eta etxera eraman du.

Ikastaroko gelan isiltasuna nagusi, ordu batzuk lehenago taldekide batek gai horixe bera jarri zuen mahai gainean: “Mutikoa daukat eta gustura eramango nuke eskolara soinekoarekin, berari gustatzen baitzaizkio eta etxean jantzen ditu. Ez naiz ausartzen”. Zein ausartzen da mutikoa eskolara soinekoa jantzita eramaten? Bullying homofobikoa ez baita orientazio sexualaz ari soilik, baita genero rolen mugez ere. Mariok muga gainditu du. n

**Bullyingaz hitz egiten  
denean homofobia ez da  
aipatu ere egiten eta Alba  
Payas psikoterapeutaren  
ustez lehen kausa da**



**HONDARRIBIA**  
**Euskara Zerbitzua**

Kale Nagusia 20 • 20280 Hondarribia • Tel.: 943 111 241 • [www.hondarribia.org](http://www.hondarribia.org)

Zorionak eta urte askotarako, Argia.